

PuLunPe

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA

172. Zenbakia



Zorion, etxe hontako denoi!
Oles egitera gatoz,
aterik ate ohitura zaharra
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oinetakoz.
Baina eztarriz sano gabiltza,
ta kanta nahi degu gogoz.

Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.
Santa maitea gaur hartu degu
gure bideko laguna.
Haren laguntzaz bete gentzake
egun hontako jarduna.



Euskararen dekretu berria: ARGIAK ETA ILUNAK

103/2007 Foru Dekretua jadanik indarrean dago, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzeko. Nafarroako Gobernuan hizkuntz profilak ezartzeko urtebeteko epea ezartzen duenez, euskara merituz moduan baloratzeko modua da bere ekarpenik garrantzitsuena. Zoritxarrez, arlo hori nahiko eskasa du. Dena den, aztertzeko arlo gehiago du Dekretu honek eta arautzen duen guztia ez da aurreko Dekretua hobetzeko.

1 Dekretuak dioenez, langile euskaldunen zerrendak agortuz gero, hizkuntz profilik gabeko pertsonak bete ditzakete horrelako postuak, betetzeko zailak diren lanpostuetan. Gure ustez, erantsi beharko luke: "Halakoetan, euskarazko zerrendak berritu eginen dira berehalakoan eta lanpostu horiek ahalik eta arinen langile euskaldunekin beteko dira"

2 Nafarroako hainbat udal UEMAn daude, eta euskara hutsez funtzionatu behar dute, UEMaren ezaugarria horixe baita, eta euskarak, hizkuntza gutxitua izanik, arnaguneak behar baititu. Dekretu honekin, udal horiek trabak izan ditzakete euskara hutsean funtzionatzeko.

3 Eremu mistoan euskaraz egindako eskaerei erantzun elebiduna emanen zaie. Eremu mistoko Euskararen Ordenantza gehienetan, aurreikusia dago euskarazko erantzuna. Beraz, problema ez zegoen tokian, problema sortu du Dekretu honek.

4 Dekretuaren arabera, eremu ez euskalduneari administrazioek elebitasuna erabil dezakete, lan deialdietan euskara eska dezakete eta euskara puntua dezakete. Gure ustez, aukera hauek idatzita geratzea ondo dago. Dena den, lehen ere ez zegoen debekaturik.

5 Elebiko euskarrietan, eskuinean edo goian jarriko da euskara. Ongi ikusten dugu hori. Eremu ez euskalduneari, ordea, alderantziz arautua dago.

6 Nafarroako Gobernuaren zerbitzu zentraletan elebitasuna ezarri du errotulazioetan eta herritar guztiei zuzendutako informazioetan. Hauxe da benetan Dekretuak ekarri duen aurrerapausorik nabarmenena.

7 Zein da balorazio orokorra? Lan deialdi gehien-gehienetan, orain arte bezala, euskara ez da puntuatuko, eta Osasunbidean beste merituek ia estaliko dute. UEMako Udaletan euskarazko funtzionamendua ez da bermatu. Kasu batzuetan, arazo berriak ekarriko ditu Dekretu honek. Errotulazio eta komunikazioetan izanen da aurrerapausorik handiena. Oro har, laburbilduz, Nafarroako Administrazioetan euskara errotzeko aukera galdua da Foru Dekretu hau.

“Lan deialdi gehien-gehienetan, orain arte bezala, euskara ez da puntuatuko, eta Osasunbidean beste merituek ia estaliko dute. UEMako Udaletan euskarazko funtzionamendua ez da bermatu. Kasu batzuetan, arazo berriak ekarriko ditu Dekretu honek. Errotulazio eta komunikazioetan izanen da aurrerapausorik handiena. Oro har, laburbilduz, Nafarroako Administrazioetan euskara errotzeko aukera galdua da Foru Dekretu hau.”

Administrazioan Euskaraz Taldea 

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan, Aritz Gorostiaga, Txetxu Biguri, Patxi Irurzun, Larraintzarko ikastetxea, Anotzibarkook, Patxi Oskotz...

Koordinatzailea: Lur Gil Rey

Maketazioa: Lur Gil Rey

Tirada 1.600 ale | Inprimategia: Gertu

Lege gordailua: NA 721/93

Inprimategira Otsailaren 21ean bidalia

Nafarroako  Gobierno de Navarra



HORMARA

20:00

Lizaso (Kuartelenea)

23



Skabidean

KONTZERTUA
SKABIDEAN

Bigarren diska atera berri duen Iruñeko Skabidean taldea izango dugu Lizasoko elkartearen. 19-21 urteko gazte hauek, 5 urte daramatzate Euskal herriko txoko askotan jotzen, eta Otsailaren 23an, ultzaman izango ditugu lehenengo aldiz. Animatu eta etorri SKA musikaz gozatzera!!!!

Martxoaren 14an | 19:00etan | Larraintzarko bentan

Film laburren proiektzioa
eta
film baten zuzendariarekin salsaldia

Laburbira
Euskarazko film laburren zirkuitua
Ostailaren 28tik martxoaren 28ra

NIRE LEHENENGO HILEKORANTZ
GERTURATUZ / CAMINANDO HACIA MI
PRIMERA MENSTRUACIÓN

Amentzat eta 9-13 urte bitarteko
alabentzat gomendatua / Recomendado
para madres e hijas de 9 a 13 años.



Ostailak 15,
irakurlea
MUSIKAZO
ITSASOAREN
JANERAN (Imotz
-Nafarroa).
0:00 etatik 14:00
etara.



Domingo 15 de
febrero en la
sala de
ITSASOAREN
JANERAN de
MUSIKAZO
(Imotz-Nafarroa).
De 10:00 a 14:00
horas.

Bikileko 60 Euro/ Precio por pareja 60 Euros.
Informazioa / Información Izan amara / Inscrpción:
627923697 / 616141694

Inazko Udakak lagunduta / Con la colaboración del Ayuntamiento de Imotz.

Gorde eguna!



OTSAILAK 24 larunbata, goizeko 11.00

1. Ohiane eta Judith / Amaia eta Irene (Frontenis neskak)
2. Beloki eta Loidi / Erbiti eta Lazkoz (Lehen Maila)

Arratsaldeko 16.00

1. Urtzi eta Sanz / Iker eta Pablo
2. Beloki eta Koldo / Egoitz eta Julen
3. Goli eta Berbo / Xanti eta Kasillas (Lehen Maila)

MARTXOAK 2 ostirala, arratsaldeko 19.00

1. Mirian eta Miren / Ane eta Ainhoa (Neskak eskuz)
2. Zapa eta Santi / Ibai eta Riki (bigarren Maila)
3. Alex eta Roberto / Zepelo eta Juanjo (bigarren Maila)

MARTXOAK 3 larunbata, goizeko 11.00

1. Ohiane eta Judith / Mari Jose eta Naroa (Frontenis neskak)
2. Igoa eta Gamio / Beloki eta Loidi (Lehen Maila)

Arratsaldeko 16.00

1. Andrea eta Nerea / Eider eta Eunate (Frontenis neskak)
2. Legarra eta Urtasun / Luis eta Jesus Mari (Lehen Maila)
3. Egoitz eta Julen / Iker eta Pablo (Lehen Maila)
4. Goli eta Berbo / Alberro eta Urtxipia (Lehen Maila)

MARTXOAK 9 ostirala, arratsaldeko 19.00

1. Olatz eta Leire / Mirian eta Miren (Neskak eskuz)
2. Zapa eta Santi / Jorge eta Josu (Bigarren Maila)
3. Amaia eta Irene / Andrea eta Nerea (Frontenis neskak)

MARTXOAK 10 larunbata, goizeko 11.00

1. Ohiane eta Judith / Eider eta Eunate (Frontenis neskak)
2. Beloki eta Koldo / Iturraide eta Olio (Lehen Maila)

Arratsaldeko 16.00

1. Legarra eta Urtasun / Igoa eta Gamio (Lehen Maila)
2. Luis eta Jesus Mari / Erbiti eta Lazkoz (Lehen Maila)
3. Sergio eta Itaki / Xanti eta Kasillas (Lehen Maila)

MARZUOLUS KANPAINA 2018

Ibilbide gidatuak Ultzamako paga-
dietan barna, Marzuolus zizaren
bila.

Martxoaren 3an (10:00-13:00)

Prezioa: 15€ (Urteko abonarekin
10€)

info@marquemicologico.com
671814005

MARTXOAK 16 ostirala, arratsaldeko 19.00

1. Arrate eta Naroa / Mirian eta Miren (Neskak eskuz)
2. Ibai eta Riki / Jorge eta Josu (Bigarren Maila)
3. Mari Jose eta Naroa / Andrea eta Nerea (Frontenis neskak)

MARTXOAK 17 larunbata, goizeko 11.00

1. Mari Jose eta Naroa / Amaia eta Irene (Frontenis neskak)
2. Iturraide eta Olio / Iker eta Pablo (Lehen Maila)

Arratsaldeko 16.00

1. Igoa eta Gamio / Erbiti eta Lazkoz (Lehen Maila)
2. Egoitz eta Julen / Urtzi eta Sanz (Lehen Maila)
3. Sergio eta Itaki / Alberro eta Urtxipia (Lehen Maila)

MARTXOAK 23 ostirala, arratsaldeko 19.00

1. Final Aurrekoak Neskak eskuz (1 - 4)
2. Final Aurrekoak Neskak eskuz (2 - 3)
3. Bigarren Mailako partidu atzeratuak

MARTXOAK 24 larunbata, arratsaldeko 16.00

1. Frontenis neskek partidu atzeratuak
2. Final Aurrekoak (Lehen Maila) Lehen A, bigarren D
3. Final aurrekoak (Lehen Maila) Lehen B, Lehen D

Apirilak 7 larunbata, arratsaldeko 17.00

FINALAK

1. Bigarren Maila
2. Frontenis
3. Neskak eskuz
4. Lehen Maila



lazko arrakastaren ondoren...

berriro gurean...



"Musikari Txikiak" 0-3 urtekoen musika tailerra



"haurra eta gurasoen arteko lotura afektiboa indartzeko"

"musikaren unibertsoarekin gozatzeko"

"txikitxoaren zentzumenak esnatzeko"



Hasiera: 2018ko Martxoan
(data zein ordutegiak eskariaren arabera)
4 saio - 30 € ikastaroguztia
* **Aurre izena ematea:**
Doakoa / Epea: otsailaren 19
+info: www.aralar.org
Tf: 672122472

Gune honek
GREBA FEMINISTA
babesten du

2018ko Martxoak 8

ATE IREKIAK - PUERTAS ABIERTAS
Otsailak 19 de febrero
16.15-17.30

AURREMATRIKULAK - PREMATRÍCULAS
Martxoaren 1etik 15era
Del 1 al 15 de marzo

XINBILI XANBALA HAUR ESKOLA
Animata eta etorri gure eskola ezagutzera!!
¡¡Animaros y venir a conocer nuestra escuela!!

Estatuen esku-hartzea | **GELDITU**

La lengua NO es toca

Defensem el català!

NO ES TOCA

Aturem el **155**

#LlenguaNOCa

TTIKIENA HAUR ESKOLA

Ate irekiak:
OTSAILAREN 26an, 16:00-17:30

Aurrematrikula:
MARTXOAREN 1etik 15era

"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak...
ZATOZ DINAMIZAZIO BATZORDERA!
Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitez!
Email bidez informazioa jasotzeko: kulturmugi@gmail.com"

Lanzko Ihoteak (III) Zaldiko

Aurreko urteetan Lanzko ihoteez aritu izan gara. Eta bertan agertzen diren pertsonaietako batez edo batzuez ere iharduki genuen, Ferratzaileak deitzen direnez mintzatu ginen. Gaurkoan, *Zaldiko* ekarri dugu hona, eta honen erranahiaz arituko gara. Hori bai, betiko azalpenetatik at joan nahi izan dugu, "bidelapur batek herria ikaratua zuela eta, harrapatu eta fusilatzen dutela" zeinetan *Zaldikoren* papera ia hutsa den. Gure iritzia oso bertzelakoa da eta hemen azaltzen ahaleginduko gara.



Zaldiko, segizioan

hoteetako *Zaldiko*, fartsako bertze pertsonai bat dugu, mutil bat zaldi itxuran jantzia.

Zaldiko, zurezko euskarri soil batez dago hornitua, lokarri gurutzatu batzuez eutsita eta soina zaku tela batez estalia. Ez du bertzerik.

Zurezko euskarri errektangular horrek, aitzinetik ez du buru ñimiño bat bertzerik V antzekoa, eta gibeletik buztan ez oso usua, baina hori bai, benetako behor kimekin hornitua.

Eta bertzerik gabe baina, hori bai, ibilera ageriekin,

hori daraman mutilak ez du irrintzi egin beharrik ere sinesgarria izateko, eta da beharbada, nazioarteko folklorean den zaldikorik sinestezinena.

Nafarroan, bertze herrialde batzuetan bezala, oso arruntak dira festetako zaldikoak. Antzinetik dira ezagunak Iruñeko zaldikoak eta nahiz eta, beharbada, jatorri berekoak izan, ez dira ihoteetako zaldikoekin nahasi behar. Zenbait marrazkietan ikus daiteke *Zaldiko* daramatenek txistu edo antzeko zerbait berekin dutela; eta hortaz, bere jatorrian jugglearekin parekatzea da errazena.

Hemen bertze *Zaldiko* ezaguna eta famatua Zuberoako pastoraletako *Zamaltzain* dugu.

Zaldiko ez bezala, *Zamaltzain*, Jose Maria Iribarrenek dioen bezala, pinpirina eta dotorea da. Lehenaren basati izaera eta bigarrenaren sofistikazioa kontrajarri dezakegu.

Horrela, *Zamaltzainen* euskarriaren kutxa-estalkia *zaldi-estali* dotore eta parpaila eta puntilladuna gehi dantza finari, kontrajartzen ahal zaio Lanzko *Zaldikoren* euskarri xumea, mugimendu, eraso eta oihuei.

Zaldiko ez da zaldi soil bat, zaldi basati bat baizik. Gizontasuna da, udaberriarekin hezigaitza bihurtzen delarik edo, gutxienez bederen, nabarmentzen. Gizontasuna, gazteetan eragiten duena, eta nola ez, *Ziripot* gaztearengan, gazte guzien parte bat dena, bere gaztetasuna xahutzen duena parranda eta jan edanean.

Talde nagusiaren gaintetik, *Mielotxinek*, hau da, Grinak edo irrikak du gazteen portaera gidatzen.

Mielotxin, Grina izan ohi den bezala, edo hobeki erran, gizakia baino gehiago, otsoa, eta ihoteen azken egunean sutan erretzen duten, *Zaldikok* ere behar izaten ditu *Ferratzaileak*, herriko gizatalderik prestigio handiena duena, bere neurrigabekeria zuzendu eta ezkontza-ohera bideratzeko, ferratzearen bidez, horrela ez baita izanzen hain hezigaitza.

Eta konformatu liteke *Zaldiko* sexuaren aurreko ferratzearekin, zeren kasu *Zamaltzaini* gertatzen zaionarekin Violeta Alfor folkloristak dioenari arabera! "Erritu pantomimetan osatzaile



Zaldiko, ziripoten kontra erasoan

talde handi batek, "Kherustuak" deituak, ustekabeen harrapatzen saiatuko da. Eta azkenean, ezinbertzean, tranpa bat prestatu eta atxilotuko dute.

Kontuz honi! Gizonaren oinarrizko beharrak ez dira beti gizarte usadiorekin bat izten, Europako iparraldean ez bada behintzat, diotenez. Honetan ere europarrak gara, baina oraindik ez gara suediarrek. Hortik pastoraletako osatzeraino... baina hobea izanzen da irrikik ez egitea, zenbait gauza aipatzea ere ez baita komeni izaten.



Zamaltzain, Zuberoako zaldikoa



ARMAZÓN DEL XALDIKO DE LANZKO

Lanzko Zaldikoren euskarria

HIZTEGIA:

IHDURKI. CONVESAR (HEMENGU HITZA DA)

BIDELAPURRA: BANDIDO

EUSKARRIA: ARMAZON

AITZINA: AUREA. ULTZAMALDEAN ALTZINA ERRATEN DUTE.

GIBELA: ATZEA. (HEMENGU HITZA DA)

KIMA: CRIN

SINESTEZINA: INCREIBLE.

ARRUNTA: COMUN

ANTZINA: ANTIGUEDAD

JATORRI: ORIGEN

JUGLAREA: TXITUA ETA ANTZEKO INSTRUMENTUAK

JOTZEN DITUENA.

PARPAILA: VOLANTE

HEZIGAITZA: INDOMABLE

NEURRIGABEKERIA: DESCOMEDIMIENTO

OSATU, ZIKIRATU: CAPAR. OSATZAILE: CAPADOR

Buruzgain pilota eskola, Euskal Herriko elitean

Maila handiko txapelketak jokatu ditu azkenaldian, eta txapelen bat ere ekarri du etxera taldeak.



Azkenekoa Larraungo txapelketa izan da. Hainbat mailatan lehiatu dira Buruzgain taldekoak, eta bi sari handi ekarri dituzte. Gaz-

te mailan txapeldunorde izan ziren ultzamarrak, eta gaztetxo mailan, berriz, txapeldun.

Eta gure ingurutik kanpo ere aritu dira Buruzgain-goak. Otsailaren 18an Euskal Herriko klubaren arteko txapelketa nazionalaren finala izan zen, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Ultzamarrek ez zuten lortu finalera iristea, finalerdietan galdu egin baitzuten gerora txapeldun izanen zen "Zazpi Iturri" taldearen aurka.

Dena den maila txukuna erakutsi zuten txapelketa horretan, eta Ilunbe eta Lemoako taldeei irabazi zieten. Laugarren aldia zen txapelketa hau lehenbizikoz egin zenetik, eta 17 talde aritu dira aurtan.

Aroztegiko elizaren sarbidean ezarritako edukiontziek kexaren bat ekarri dute

Atezko Udalak Aroztegiko elizaren aldamenera eraman zituen zakarra jasotzeko edukiontziak, ohiko lekuan ezin baitzituen eduki. Eta lekualdaketa honek, elizaren sarbidea oztopatzen duelakoan, kexaren bat eta beste sortu ditu.

Atezko alkate Ezekiel Martinekin mintzatu gara, edukiontziek sortu duten egoeraz galdetzeko. Denbora tarte labur baterako aldatu zirela esan digu Ezekielek, ez direla behin betiko bertan geratuko.

Dena den, azaldu digu ez dutela elizaren sarbidea oztopatzen, elizara doan bidea guztiz garbi baitago. Beraz, kexa justifikatu gabea dagoela adierazi digu, eta bertaratzeko gonbita egin. Aroztegira joan gara, eta argazkian bidea itxita dagoela ematen duen arren, edukiontziek ez dute sarrera oztopatzen. Bide batez,



aipatu beharra dago edukiontziek eliza ondotik kendu dituztela jada, eta hilabete bat baino gutxiago iraun dute eliza ondoan, Ezekielek azaldu bezala, behin behineko neurri gisa.

Irudi batean





Martxoaren 8an mundua geldituko da

Aurtengo martxoaren 8an, emakume langileen nazioarteko egunean, planto eginen dute Euskal Herriko emakumeek. Eta ez soilik hemen, mundu erdian ere deitua baitago hezkuntza, lan, kontsumo eta zaintza greba.

Joan zen urtean Latinoamerikan greba feminista deitu zuten martxoaren 8an. Lan esparruan ez ezik, bizitzaren beste arloak ukitzen dituzten esparruak ere landu nahi izan zituzten, honela, hezkuntzari dago-kion esparru osoan ere greba egin zuten, eta baita bereziki emakumeengan erortzen den zaintza lanetan ere. Horrekin guztiarekin batera, kontsumoari uko egin eta arlo honetan ere greba egitea erabaki zuten.



Ordutik, Euskal Herrian ere, emakume langileen nazioarteko egunean greba deitzea eztabaidan egon da, baina herriz herri egindako asanbladetan grebara joatea erabaki dute emakumeek, nazioartean deitua dagoen greba egunarekin bat egin.

Basaburuko Bilgune Feministak ere bat egin du deialdiarekin, eta greba prestatzeko batzarra deitu dute otsailaren 23an. Hauxe da diotena:

“Iaz, 70 herrialde baino gehiagotan, emakumeek* na-

zioarteko emakumeen* grebarako deialdia zabaldu zuten, emakumeen* kontra indarkeria eta desberdintasun molde ugari eragiten dituen munduaren aurrean.

Hortaz, aurtengo martxoaren 8an Euskal Herriko mugimendu feministak bat egin nahi du EMAKUMEOK* PLANTO aldarriarekin, menpean hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatuzko. Egun hau, bide luze baten abiapuntua izanen da.



Horregatik Euskal Herriko mugimendu Feministak greba deialdia egin du. Guzti honen inguruan hausnartu eta greba bera prestatzeko batzarran parte hartzeko gonbita luzatzen dizuegu.”

Batzar horretan, besteak beste ondoko gaiak landuko dituzte: Basaburuan greba egunaren eta zabalpenaren antolaketa, emakume zein gizonen parte hartzea greba egunean, manifestua eta beste hainbat gai.



Ezkabako ihesa, **memoriaren** eta modaren artean

Azken urteotan 1938an gertaturiko Ezkabako ihesarekin harremana duten hilobiak aurkitzen ari dira. Adibide argia da, gurean Burutainen aurkitutakoa, non 6 gorpu zeuden lurperatuta.

Burutaingoa ez da hilobi bakarra izan, eta aurkitutakoak zein Ezkabatik ihesi, askatasunaren bidean presoek egindako ibilbidea lotuz, GR-225, Ezkabako ihesaren bidea sortu zuten Nafarroako Mendizale federazioak eta Nafarroako Gobernuak elkarlanean. Lau etapaz osatuta dago bidea, Ezkaba menditik Urepelerraino, eta tartean 5 hilobi zeharkatzen ditu: Olabe, Burutain, Usetxi, Urtasun-Agorreta eta Lintzoaingoa.

Proiektuak harrera ona izan zuen, eta jada 53km-ko bide osoa markaturik dago, eta osorik zein tarteka egiteko informazio ugari dago.

Baina, aferak polemika ere ekarri du. Azken urteotan “modan” jarri diren mendi lasterketei jarraituz, bide hori egiteko lasterketa antolatzen ari ziren hainbat korrikalari ezagunek. Arazoa eta sare sozialetako polemika lasterketaren laguntzaileak argitara atera direnean etorri da: COPE, Diario de Navarra, Espainiako ejertzitza...

Lasterketa egiteko izena emanda zeuden askok ez parte hartzeko erabakia hartu zuten, eta sare soziale-tan publiko egin ere. Frankismoaren biktimen elkar-teenk ere ez zuten begi onez ikusi halako kolabora-tzaileak izatea, memoria historikoa ezkutatu dutenak baitira haien esanetan.



Azkenean, lasterketa bertan behera uztea erabaki du antolakuntzak, ataka larrian baitzeuden, eragile sozial, korrikalari eta kolaboratzaileen eraso gurutzatuen artean.

Distantzia luzeko lasterketen modak muga guztiak gainditu ditu, baita marra gorri batzuk ere, hori izan da kritikaren ardatza, eta, beraz, ematen du memoria historiko osoa argitara atera eta biktimen aitortza egin arte ezinezkoa izanen dela halako lasterketarik egitea, bidea korrika egin nahi zuten batzuek, konturatu gabe, agian, lehenengo pausoa ematea falta dela oraindik.

Dena den, eta lasterketa egingo ez den arren, ibilbidea oinez zein korrika egiteko aukera duzue nahi duzue-nean, oso ongi markatuta baitago eta hilobi bakoitzaren aldamenean memoria historikoaren informazio zehatza izanen duzue.





Zizak neurrian 2017an



Iragan den onddo eta ziza denboraldian, udazkeneko lore gutxi izan denaren sentsazioak hartu gaitu. Ez omen da beste urteetan bezalako onddorik aurkitu, gutxiago omen zegoen.

Bada, Ultzamako Parke Mikologikoak datuak jarri ditu mahai gainean, sentsazioak sentsazio ote diren jakiteko. Eta ondorioa hauex; produkzioa normal eta onaren artean izan da, inondik inora ez da txarra izan. Irail erdialdea izan zen fruitu gehien eman zituen garaia, eta urriaren erdira arte iraun zuen produkzioak. Hortik aurrera, espezie gehienek sortzeari utzi zioten, garai hartan izandako bero handiegi eta euri eskasiagatik.

Eta onddo beltz gutxi egon dela esaten duenari arrazoia emanen diogu. *Boletus gr. edulis* espezieari dago-kionez, oso urte kaskarra izan da abuztu eta iraileko hasiera umela eta freskoaren ondorioz, ez baita espezie honendako aproposa; izan ere espezie horrek aurrez beroa eta lehorra behar izaten du. Orain martxoko edo elurretako zizaren garaia da.

Ultzamako “Herri txiki infernu handi” otsailaren 25ean



Lehendabizik Basaburuan, Imotzen gero, eta orain-goan Ultzaman izan da ETB1eko “Herri txiki infernu handi” telebista saioa. Herriz herri grabatu ostean Larraintzarko Bentan egin zuten publikoaren aurreko emanaldia, Zuhaitz Gurrutxaga, Mikel Pagadi eta Sebastian Lizaso bertsolariarekin.

Behin emanaldi hori eginda, ETB1ean otsailaren 25ean ikusi ahalko dugu, ohikoa den bezala, igandean. Larraintzarko emanaldiko irudiak ere jasoko ditu saioak.

Txikitxoendako musika ikastaroa



Aralar musika eskolak joan zen urteko esperientziari heldu eta aurten ere musikari txikien ikastaroa antolatatu du. Txiki-txikitatik musikarekin harremana izan dezaten eta musika goza dezaten. 0-3 urte bitarteko haurrentzat zein gurasoentzat ekimen polita da. “Hormara” atalean duzue izen emateko informazioa.



43 bikote eskualdean, Euskal Herriko muslari onenen lehian

Beste urte batez Euskal Herriko mus txapelketa etorri zaigu eskualdera. Bost kanporaketa izan ditugu Ultzaman, Imotzen eta Basaburuan, eta 86 pertsona aritu ziren, 43 bikote.

Otsailaren 24an Nafarroako kanporaketa izanen da Iruñean, eta hortik igarotzea lortzen dutenek Euskal Herriko finala jokatuko dute.

Gartzaronen, Igoan, Jauntsaratsen, Etxalekun eta Iraizotzen izan ziren mus txapelketako kanporaketak. Osotara 43 bikote, eta horietatik 7k jokatuko dute Nafarroako kanporaketa. Herriz herriko kanporaketak azalduko ditugu orain:

Gartzaronen 8 bikote aritu ziren, eta irabazleak Joseba Satrustegi eta Javier Latasa izan ziren.

Igoan, 12 bikotek parte hartu zuten, eskualdeko jendetsuena. Iñaki eta Aingeru Etaio izan ziren irabazleak, eta bigarren Migeliko eta Asensio. Hauek ere Nafarroako kanporaketara pasako dira.

Jauntsaratsen 8 bikote aritu ziren. Patxi Biurrarena eta Peio Doray izan ziren irabazleak.

Imozko kanporaketa Etxalekun jokatu zuten, eta 4 bikote aritu ziren, txapelketa azkarra izan zen. Jose

Ramon Beloki eta Iñaki Beloki izan ziren irabazleak.

Azkenik, Ultzamako kanporaketa Iraizotzen izan zen, eta hau ere jendetsua izan zen, 11 bikote apuntatu baitziren. Jon Etxeberria eta Mainer Larraioz izan ziren irabazleak. Gorka Iraizotz eta Mari Iraizotz bigarren sailkatu ziren, eta hauek ere Iruñera joanen dira herrialdeko kanporaketara.

Otsailaren 24an, goizean goiz hasita izanen da kanporaketa. Hasi baino lehen gosaria egiteko aukera ere izanen dute parte-hartzaileak, eta gero 8:30etik aurrera Nafarroa osoko 144 bikote arituko dira finalerako txartela eskuratu asmoz.

Sari ederrak dituzte zain parte-hartzaileak, irabazleak txapelaz gain 3.000 euroko saria eta Karibera bidaia bat irabaziko baitu! Gainera, halakoak ez izan arren, denendako sariak egonen dira.



Jauntsaratsen parte hartu zuten guztiak



Joseba Satrustegi eta Javier Latasa, Gartzaronen



Iraizotzko kanporaketako momentu bat



Ultzamako ordezkariak Nafarroako txapelketarako



Argipen gutxi “Utzama kasuaren” batzordean



Nafarroako Parlamentuak ikertzen duen “Utzama kasua” amaierara gerturatzen hasi da. Nafarroako instituzioetako ordezkariak deklaratu dute jada, eta orain plantarekin zerikusi zuzenagoa duten pertsonak ari dira Parlamentuko komisiotik pasatzen.

Dena den, ez dira afera argitzen ari, deklarazio gutxi egiten ari baitira. Azken txanpa honetan deklaratzeko lehenengoak Patxi Perez eta Patxi Tornaria Ultzamako alkate ohiak izan ziren, baina ez zuten hitzik ere esan. UPNk berriz, beste izen bat jarri du mahai gainean, 2008 baino lehenago Nafarroa Bai alderdiko zerrendaburu zen Josu Osakar, abeltzain gisa plantarekin harremana izan zezakeelakoan. Honek, aldiz, akusazioak ukatu eta salatu egin ditu.

Deklaratzen azkena Lavenger SL enpresako lehendakari Jiri Bezdicek Vondrackova izan da, Ultzamako biogas plantaren hasierako jabea. Honek ere ez die parlamentarien galderei erantzun, baina aurpegia zuzitzen zuen deklarazio bat irakurri egin zuen denen aurrean.

Iritzia: “Ezerezetik ezerezerantz”

Ezerezetik. Ezerezetik hitza. Ezerezetik hitza nola. Ezerezetik hitza nola sortzen. Ezerezetik hitza nola sortzen den. Ezerezetik hitza nola sortzen den erakusten. Ezerezetik hitza nola sortzen den erakusten du.



Iñigo Astiz
BERRIA egunkarian

zen den erakusten du. Ezerezetik hitza nola sortzen den erakusten du Itziar. Ezerezetik hitza nola sortzen den erakusten du Itziar Okarizek. Ezerezetik hitza nola sortzen den erakusten du Itziar Okarizek liluraz. Ezerezetik hitza nola sortzen den erakusten du Itziar Okarizek liluraz uzteko. Ezerezetik hitza nola sortzen den erakusten du Itziar Okarizek liluraz uzteko erortzen. Ezerezetik hitza nola sortzen den erakusten du Itziar Okarizek liluraz uzteko erortzen gero. Ezerezetik hitza nola sortzen den erakusten du Itziar Okarizek liluraz uzteko erortzen gero berriro ezerezerantz.

Martxoan eta apirilean Ibilgailuen azterketa teknikoa



Urtero bezala, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT euskaraz, I.T.V. erdaraz) eskualdean pasatzeko aukera izanen da. Herriz herri ibiliko da IATko unitate mugikor bat, eta nekazaritzarako ibilgailuei azterketa eginen die.

Herri bakoitzean jakinaraziko da zein izanen den leku zehatza, baina aurreko urteetakoak izanen dira aldaketa handirik gabe. Martxoaren 9an hasiko dira azterketak egiten, Jauntsaratsen, eta apirilaren 18 bitartean arituko dira. Hemen duzue herriz herriko zerrenda;

Martxoan:

9an; Jauntsaratsen
12an; Ihabenen
12an; Berueten
14an; Orokietan
15ean; Gartzaronen
16an; Oskotzen
21ean; Latasan (Imotz)
22an; Igoan
23an; Eritzen (Atetz)

28an; Lizason

Apirilean:

4an eta 5ean; Alkotzen
6an; Eltzaburun
9an; Gerendiainen
13an; Ziaurritzen
16an; Lantzen
18an; Olaguen

Erakusten du Itziar Okarizek liluraz uzteko erortzen gero berriro ezerezerantz.

Ezerezetik hitza nola sortzen den erakusten du Itziar Okarizek liluraz uzteko erortzen gero berriro ezerezerantz.

Ezerezetik hitza nola sortzen den erakusten du Itziar Okarizek liluraz uzteko erortzen gero berriro ezerezerantz. Nola sortzen den erakusten du Itziar Okarizek liluraz uzteko erortzen gero berriro ezerezerantz. Sortzen den erakusten du Itziar Okarizek liluraz uzteko erortzen gero berriro ezereze-

Erakusten du Itziar Okarizek liluraz uzteko erortzen gero berriro ezerezerantz. Erakusten du Itziar Okarizek liluraz uzteko erortzen gero berriro ezerezerantz. Du Itziar Okarizek liluraz uzteko erortzen gero berriro ezerezerantz. Itziar Okarizek liluraz uzteko erortzen gero berriro ezerezerantz. Okarizek liluraz uzteko erortzen gero berriro ezerezerantz. Liluraz uzteko erortzen gero berriro ezerezerantz. Uzteko erortzen gero berriro ezerezerantz. Gero berriro ezerezerantz. Berriro ezerezerantz. Ezerezerantz.

Zer ekarriko digu tokiko mapa berriak?

Asko entzun dugu tokiko maparen erreformaz, bereziki Nafarroako Parlamentuan sortu duen eztabaidaz eta eskualde berrien sorreraz. Txosten luze bat argitaratu zuen Nafarroako Toki Administrazioak, erreforma azalduz, baina zaila da jakitea zein aldaketa praktiko ekarriko dizkigun guri, Ultzama aldean.

Hori zehaztasunez jakiteko, Nafarroako Toki Administrazioako zuzendari den Xabi Lasarekin mintzatu gara.

Tokiko maparen erreformak orain dauden mankomunitate eta bestelako toki entitateak erreformulatu eginen ditu, eta udalak eta kontzejuak bilduko dituen entitate bakarra sortuko du, eskualdea; udalek eta kasu askotan mankomunitateek kudeatzen zituzten zerbitzuak emanen dituztenak.

Hamaika eskualde sortuko dira Nafarroan, geografiari eta bizitzeko moduari loturik aukeratuak, eta Ultzama alde horietako bitan banatuko litzateke. Basaburua, Imotz eta Atetz "Larraun-Leitzarar" eskualdean egonen lirateke administrazioak proposatutako erreformaren arabera, eta Ultzama, Odieta, Anue eta Lantz "Arga" eskualdearen barneko "Bailarak" azpi-eskualdean. Hala ere, udalen esku dago eskualde batean edo bestean integratzea, baldin eta beste eskualde batekin muga egiten badu hasierako proposamenean.

Gurean zalantza eta eztabaida gehien izan dutenak Atetz eta Ultzama izan dira, Ultzamak tentazioa izan baitu Larraun-Leitzarar aldera joateko, eta Atetzek ere zalantza izan du egokitutako eskualdea biztanleentzat egokiena ote den. Hau bera datorren hilabeteko erreportajearen landuko dugu, eta gure inguruko bailaretan hartutako erabakiak zein izan diren argituko dugu.

Baina lehenago argitu ditzagun zalantzak. Horretarako Xabi Lasari egin diogun elkarrizketa baliatuko dugu, Nafarroako Toki Administrazioako zuzendariari:

Hasteko, zergatik zen beharrezkoa mapa lokalaren erreforma egitea?

Bai Parlamentutik eta baita toki entitateetatik ere aspaldi eskatzen zuten aldaketari erantzuten dio erreforma honek. Gaur egun, nahiz eta ahalik eta modurik egokienean funtzionatzen duten, desordena handia dago toki entitateen antolakuntzan, finantzazioan eta beste hainbat arlotan. Aldaketa honek antolaketa eta eraginkortasuna bilatzen ditu, eta aldi berean toki entitateei autonomia eta indar gehiago ematea.

Hiru zutabe ditu erreformak; alde batetik eskumenen banaketa erreala egitea, hau da, kirolean, hezkuntzan... Nafar Gobernuaren eta toki entitateen artean ez zapaldu edo estaltzea. Bigarrenik, planta edo egitura aldatu, eta hirugarrenik finantzazioa egokitu.

UPN eta PP aurka azaldu dira.

Nik, egia esan, ez dut haien posizioa ulertzen. Esango nuke beharra ikusten dutela, baina beharbada ez daude konforme guk ematen diogun konponbidearekin. Batzuk zentralistagoak dira, eta beste batzuk pixka bat deszentralizatzaileagoak izanen gara agian. Baina gure ereduarekin konforme ez badaude, esan dezatela zein eredu babesten duten. Baina ez dute proposamenik.

Zein da antolakuntza ekarriko duen aldaketa?

Hiru entitate mota daude: Estatuak, Nafarroako Gobernuak eta toki entitateak (kontzejuak, udalak eta mankomunitateak). Bakoitzak bere eskumenak ditu, baina badira bi entitateren esku daudenak ere, eta hori da bereiztu behar dena. Eta egitura on bat egin beharra dago. Hemen, toki entitateen artean nagusia udala izan da, tradizioagatik. Baina beste figura garrantzitsu bat kontzejua da, Nafarroa osoan ez dagoena. Horiek historikoak lirateke, eta azken 3/4 hamarkadetan mankomunitateak sortu ziren. Honek batzeko behar bati erantzuten zion, udalek ezin baitituzte bakoitza bere aldetik zaborrak kudeatu, euskara teknikari bat izan, uraren tratamendu eta hornidura egin eta abar.

Baina zer da mankomunitateekin gertatu dena? Lekuan leku alor bakoitzerako mankomunitateak sortu direla: Gizarte zerbitzuak, ura, kirola, euskara... eta ia 100 dira jada Nafarroan; gainera, oso desordenatuak. Orain, arlokako antolaketa atzean utzi eta zerbitzu guztiak batuko dituen antolaketa nahi dugu, eskualdea.





Toki Administrazioaren egoitzan elkarriketatu dugu Xabi Lasa

Ultzanueta ur mankomunitatea sortu berria da, bizitza laburra izanen du orduan?

Lehen oso ohikoa zen kontzejuek ura kudeatzea, iturburuak baldin bazituzten. Ura errekurtsio unibertsala da, eta uraren eskubidea denontzat da, nahiz eta iturbururik ez izan. Eta iturburuak izanda ere ur hori ez da pribatua. Zorritzarrez uraren kalitatea ez da toki guztietan berbera, eta estandar batzuk eskatzen dizkigute Europatik. Horri eta kudeaketa konpartituari erantzunez sortu zen Ultzanueta mankomunitatea. Orain mankomunitate horren eskumek eskualdera pasako dira.

Handia da Ultzama, Lantz, Anue eta Odieta dauden "Arga" eskualdea, eta oso ezberdina.

Argi genuen bi errealitate oso ezberdin daudela hemen, bat hiritarra eta bestea herritarragoa. Bizi baldintzak eta beharrak oso ezberdinak dira, horregatik azpi-eskualdeak sortu genituen eta erabakia udalen esku utzi. Eskualdeak, zentralizaturik, zaborraren kudeaketa eta uraren hornikuntza kudeatuko luke, eta gainontzeko guztia (gizarte zerbitzuak, euskara, kirola...) azpi-eskualdeak erabakiko du nola kudeatu. Eta azpi-eskualde

bakoitzean zerbitzuen egoitza bat baino gehiago egiteko aukera egonen da. Adibidez, hiru euskara teknikari izan ditzake "Bailarak" azpi-eskualdeak, oraindik ere eremu txikiagoetan banatuta, plangintza propioak osatzeko.

Zeintzuk dira hemendik aurrerako epeak?

Garapen normatibo konplexua du afera honek. Orain lege-marko bat onartu behar da, eta aste santuaren aurretik Parlamentuan egonen da. Hor onartu, eta eskualdeen osaketa egiteko abiapuntua litzateke. Hau modu eskalatuan eta eskualde bakoitzaren erritmoak erespetatuz eginen da. Trase base guztiak egin behar dira: ondarea, langileak, funtzioak eta abar mankomunitateetatik eskualdetara pasa behar dira eta gero eskualdeetan antolatu. Nik uste dut bizpahiru urteko epe batean eskualde guztiak funtzionatzen ariko direla.

Mankomunitateetako langileak mantenduko dira?

Bai, legez bermatuta dago langileek beren lan baldintza berberak mantenduko dituztela eskualdeak eratzen direnean. Gero, eskualde bakoitzak autonomia izanen du lanpostuen beharrak definitzeko.

Ultzama aldean dauden mankomunitateak: zaborra, gizarte zerbitzuak, ura eta euskara

Birziklatu! Non bota?







Sasuan bertsolaria (Eugi-Aritzu-Auza) (eta IV)

Antonio zuen grazia, eta Ziaurritz Buruko, deiturak, Eugin jaio, gaztetan gurasoekin batera Aritzura pasa bizitzera eta 53 urtetan Suarbera etorri zena. Hori dugu gure bertsolaria. Azken artikulua honekin bukatuko dugu *Sasuan* bertsolariaz jaso izan ditugun kontuak.



Aritzu, Anueko herri xarmanta. Antonio Ziaurritzek ia bere bizitzaren erdia herri honetan egin zuen (Amaia Urdanitzen fotografia)

Oraintsu bildutako bertso bat.

Damaso Intza kaputxinoak hiru bertso sail bildu zituen 1936ko ekainaren 29an, San Pedro egunean, gerra hasi aurretuan Auzako *Apezetxean*, *Sasuanek* berak kantatuta. Horiek aurreko artikuluetan banatu ditugu.

Gehiago ere memorian izanen zituen *Sasuanek*, eta baita Don Emilio Golderazena Auzako apezak ere, berari kantatua ere bai baitzuen bat.

Hala kontatu eta kantatu dizkigu gure adiskide bategi apezari botatuko bertso horiek: Apezak, Don Emiliok, erran men'tzioken bertson bat botatzeko beai, eta *Sasuanek* baita bota're: Hola ttuk:

***Geren faltas nagusittu
Egin zaizkigu Y-apaizak (bis)
Y-ez'man olatik, Y-ez'erresponuik,
Ta ez man sosik mezentzat.
Gorde detxagun guk gerentzat***

***Obispo eta kanonigo,
Apaizak Y-eta fraileak (bis)
Hoiek gurekin ibiltzen dira,
Zintzurra larrutu arte.
Kasurik in gabe bizi gaitzen!***

Eta gehitu digu berri emaileak: *E'tzakit erraten zuen "kasurik in gabe bizi gaitzen" o "ez kasurik egin-ta bizi gaitzen" berdin duk. Geigo're baittuen, biño ez neok gogoratzen.*

Azken bertso honetan azken bi lerroak ez ote dira beste bertso batekoak? Errimarik ez baita inon ere ageri.

Kopla hauek musika dute berezi samarra. Nik behintzat ez dut inoiz entzun horrelako doinurik. Elizako kantua dirudi. (Entzungai duzu Interneten)

Eta azkenik, bertso hauek kantatu dizkigunak hemengo euskararen kantatu dizkigu, baina gipuzkerako zenbait tanta sartzen ditu: apezak erran beharrean apaizak, Zintzurte erran beharrean zintzurra, edo artio beharrean, arte. Gipuzkoako eragina beti nabarmena izan da gure bertsolarietan, hango bertsolariak izan dituzte ispilu. Eta zer esan, beharrik gabeko Y hori sartzeko ohituraz? Hori hemengo bertso kantari askori entzun izan diet. Zergatik? Nik uste, besterik gabe, dotorea-go egiteagatik sartzen dutela. *Oso polliki kantatu zidan!*



Nolakoa zen Sasuan?

Bere bizitzan tokatu zitzaion lanari ekitea, bai horixe! Familia ere handi samarra izan baitzuen. Beharrik, gorputzez zimela eta indartsua zen. Ez handi eta ez ttiki. Lanerako gorputz aproposa. Eta lana ez zitzaion faltako bere bizitza guzian.

Umore gaitzeko gizona, zorigaitzean ere galduko ez duena, artaldea galdu zuenean jarri zituen bertsoetan ikusten denez.

Gizon gogotsua, jarrera bikainekoa, bere 73 urtetan Aita Donostiari hor hasiko zitzaion bere gazte denborako dantzak almute gainean dantzari Alkozko *Etxeberriko* lorategian. Hala ere, bere adinerako gehiegitzo, almutea utzi eta adreilu gainean dantzatu behar izan baitzuen.

Eta bertsolari bezala, zirtolaria, bere adiskideei axakaztea eta zirika aritzea gustuko zuena. Bi bertso sailetan hor du xaxatzen Ezkurra delako bat, berekin bertsoetan aritzen zena. Honako hau esaterako:

*Elizera joan da
Polaina galdurik,
¡Ezkurak balentie
Potzoloa bota dik!*

Erantzun ere erantzun zion Ezkurak beste bertso sail batez, berak ez zuela polainarik galdu eta. Baina hori beste kontu bat da. Aurreko artikuluan aipatu genuen. Eta memoria gaitzekoa genuen gainera. Bere bertso batzuetan hala dio, ez duela paperik behar denak go-goan izateko eta horrela bukatzen du bertsoa:

*“neri aztuko zaizkit
kanposantuan”*

Eta zer esan gaur atera ditugun bertsoak entzun eta gero? Ba, nonbait bigarren Errepublikara garaietako ideia berrietara irekia zen; antiklerikalak diren bertso hauek

dute erakusten. Apez eta fraideekin bazuen harreman estua, Alkozko eta Auzakoekin behintzat bai. Eta Aita Donostiarekin eta Aita Intzarekin ere bai. Hala ere, harriarriki, hemengo jendea ez bezalakoa ageri zaigu bertso hauetan, apezzeria kritikatzekoan.

Eta ausarta eta lotsarik hartzen ez duen horietakoa genuen, bertsoetan zuzen, itzulinguruka ibili gabe, gaiari heltzea gustatzen zitzaion, **gaur hona ekarri bertsoetan** eta Ezkurrari botatakoetan nabarmentzen den bezala.

Gu aritu gara zenbait zantzuetatik *Sasuanen* ezaugarriak eta nortasuna antzeman nahian. Hona, berriz, zuzenean ezagutu zuen Don Emilio Goldarazena zer zioen bertsolariak: “*Sasaun*” gizon sendoa, kristau siñismen azkarrez eratua, umore onekoa, bertsolarietako gitarra eta etorriaz jantzita, Ultzama’ko ballean guziz ezaguna izen zela.

Adiskide eta harremanak

Alkoz eta Auzako apezekin izan zuen harremana aipatu dugu, Don Justo Albizu eta Don Emilio Goldarazenaekin. Alkozten *Etxeberriko* aberratsekin ere harreman estua zuela badakigu eta zer esanik ez *Martixenekoekin*. Hala ere argi agertzen zaigu Suarbe aldean zituela bere adiskide minenak, artaldea ere Suarbe eta Ilarregiko larreetan ibiltzen zuen eta, Oskotz aldeko mugetan. Eta jakina, Orokieta eta Erbiti aldekoekin ere harreman handia zuen. Hor dugu lekuko Orokietakoa bertsolaria zena, Ezkurra, Pedro Juan.

Badirudi Suarbe aldean biltzen zirela bertsolariaren batzuk. Gerora ere bertsolari herria izanen zen hau.

Gezurra badirudi ere, *Sasuanen* ia inor ez da oroitzen. Auzako apezak zioen Ultzaman arrunt ezaguna zela, baino orain inor ez da oroitzen. Gure memoria oso-oso motxa izaten da. Eta hala izan da, eta orain eta gehiago gainera. Lurpera sartu orduko...ahantzura.

HIZTEGIA:

GRAZIA: Izena esateko ibiltzen da bertsolarien artean aunitzetan. Eta zenbait egoeretan ere bai.

DOINUA: Música, melodía.

GIPUZKERA: Gipuzkoako mintzatzeko era.

ERAGINA: Influencia.

ALMUTEA: Garia eta aleak neurtzeko zurezko ontzi mota bat. Neurri jakinekoa.

ADREILU: Ladrillo

ZIRTOA: Erantzun zorrotza edo argia.

AXAKATU: Hemengo hitza da hau, zirikatuta esan nahi du.

XAXATU: Axakatu.

APEZERIA: Apez eta fraideak. Clero.

ANTIKLERIKALA: Apez eta fraideen kontrakoa.

ITZULINGURUKA: Dando vueltas.

NABARMENDU: Agerian jarri. Destacar.

AHANZURA: Olvido.

OHARRA: *Sasuanen* eta bere familiaz gehiago jakin nahi duenak, *ikus beza Interneten ametza.eus* jarrita. Eta bildu ditugun bi bertso horiek ere entzun ditzake.



TXURDAN





Anotzibarren, 1575eko urriaren 18(666)an

- *On Pedro, on Pedro, Mari Juanak sorgindu gaitu!* – esan zuen 10 urteko Martinicok.
 - *Bai, hala da!* – gehitu zuen bere 7 urteko anaia Miguelicok - gainera, nik ikusi dut hegan egiten, hainbat haur hiltzen, baita Ostizko apaiz bat ere eta bere uztak beti oparoak dira, ez gureak bezalakoak!
 - *Hori, eta animalia bihurtu da behin baino gehiagotan, eta akelarretara eraman gaitu...*
gauza beldurgarriak oso ikusi ditugu! - negar zotinka aitortu zuen Martinicok.



On Pedrok, Ziaurritzeko eta Anotzibarreko abadeak, dena sinistu (best einteres batzuk ez ote zituen?) eta Anotzibarko Mari Juana eta Grazia eta Miguel Zubiri, senar-emazteak, salatu zituen. (Antonio Zavalak “Xandua” deitzen zuten Mariatxo neska ere aipatzen du.)

Garai ilunak ziren, Inkisizio garaiak!

Mari Juanak txikitatik konbultsioak izan zituen (epilepsia akaso?). Familiak mila buelta eman zituen, konjuruak barne, gaitza desagerrarazteko, baina alferrik.

Etiketeta betiko eraman zuen. Sorgintzat jo zuten.

Graziari mezara ez joatea leporatu zioten. Sei urte zeramatzala gaixorik ez zuten kontuan hartu!

Eta zer egin zuen Miguel Zubirik?

Rolderenakoak akelarretan txistua jotzen bide zuen eta sorgina zela aitortu zuen tortura pairatu ondoren.

Hirurak Iruñera eraman, espetxera sartu eta torturak hasi ziren. Gutxirako balio izan zituzten Larramendiren hiru anotzibartarren aldeko hitzak!

50 urteko Mari Juanari eta Miguel Zubiriri garratez hiltzea eta gorpua erretzea ezarri zieten zigor. Graziak helegitea aurkeztu zuen eta Logroñora bidali zuten ebazpena izan arte.

Santu Ofizioak absolbitu zuen, baina berandu ailegatu zen erabakia.

1575eko azaroaren 28an erre usaina ailegatu zen Anotzibarra.

Mari Juanari Taconerara lagundu zioten. Han hil eta gorpua erre zuten. Grazia eta Miguel Zubiri hilik zeuden jada, kartzelan hil ziren biak, Logroñon lehenengo eta Iruñean bigarrena. Hala eta guztiz ere, Miguelen gorpua ere erre egin zuten Taconeran.

Gaur egun arrotzak egiten zaizkigu sinismen hauek. Baina gure historia da eta horregatik noizbehinka Mari Juana, Miguel eta Grazia burura etortzen zaizkigu. Anotzibarren panpina bat egin dugu (inkisidorea) eta inauterietan erre egiten dugu. Hori bai, haurrei zer gertatu zen kontatzen diegu.

Izan ere, gure errealitatean “sorginak” badaude eta “inkisidoreak” nortzuei deitu ere bururatzen zaigu!

Iturriak:

- Baroja, Julio Caro, *Problemas psicológicos, sociológicos y jurídicos*, Revista Príncipe de Viana, 1995, 56 (206): 1017-1030.
- Idoate, Florencio, *Rincones de la historia de Navarra*, Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana, Pamplona, 1979.
- Zavala, Antonio, *Oinez eta jakinminez*, SendoaArgitaldaria, Oiartzun, Gipuzkoa, 1997.



Bada garaia **euskaraz** ikasteko

Lehenago egun batez, horrela erran zidan odietar batek:
 -Segismundok (nahi duzun izena jarri) lehenagoan ez zidan ba erran, ea noiz ikasi behar nuen euskaraz! Ea lotsarik ez nuen!
Hori dena erdaraz kontatu zidan, ez baitaki euskaraz.
 -*Ya es hora de aprendais euskara, no?* Horrela bota omen zion.

Gehienetan, horrela eskatzen dutenak euskaldun zaharrak dira, hizkuntza bat ikastea zer den ideiarik ere ez dutenak, zenbateko lana eta ordu pila eskatzen duen sumatu ere egiten ez dutenak. Eta horiek berak dira euskaraz neketan irakurtzen dutenak, idazten ez dakitenak, ...eta hala ere besteei eskatzeko bikainak. Eta modu txarrean.

Zenbait euskaldun berri irabazi ote ditugu horrela?

Horrelakoak inori aurpegira botatzarekin ez dugu inor gurena ekarraziko. Horrelako jarrerekin ez dugu inoiz deus erdietsiko, ez dugu inoiz deus onik ekarri euskarara.

Gehiago oraindik, horrela jokatzeko duten horiek dira gehienetan, beti ez esatearren, Iruñerrian edo jende ezezagunekin beren lehen hitza beti erdaraz izaten dutenak. Zer "presio", zer propaganda egiten dute? Deusez. Leku horietan euskaraz entzutea berengatik balitz zero izanen litzateke.

Eta hala ere, euskaraz gutxi dakien hurbilekoari horrela erranen dio: *Ya es hora que aprendas euskara!*

Jende honek onik ez du egiten eta kalte berriz bai. *¡Ya es hora que aprendais euskara!* Eta beren aldetik deus egin ez! Ederra etorkizuna!

Nire bizitza guztian ez diot horrelakorik inoiz inori erran. Animatu bai euskaraz ikastera ia egunero. Baina horrela iraindu aldamenekoa? Ez, ez. Bertze esaera bat ere bada aunitzetan entzuten dudana: *¡Qué verguenza que siendo de (Ultzama...) no sepais euskara!* Hizkuntza bat ikastea aitagurea ikastea balitz bezala. Eta hori erraten dutenak, ia denak, denak ez esatearren, analfabetoak dira, ez dakite irakurtzen eta idazten. Bertzei neurriak jarri, berendako dena libre. Ai, gure hizkuntza gaixoa, horrelako "adiskideekin"



Pieter Bruegel Zaharra (1525-1569) deitzen den pintorearen koadroa, **Eskaleak** deitua. Orain bi hilabete atera genuen hau bera, baina ez genuen norena zen jarri. Huts egite handia. Orain berreskuratu dugu, gaurkoan ere eskaleak ateratzen baitzaizkigu artikuluan eta horrela zorra ordainduta gelditzen da.

etsairik ez du behar. Eta horrela goaz, ikasiz joan beharrean desikasiz, jendea uxatuz.

Jende arranoa! Imotzen bildu zuen Damaso Intza kaputxinoak atsotitz hau: *Eskalea beti hartzekodun!* Ez zaitzela beti eskale izan. Lehenik zuk zerorrek ikasi, gero eskatu. Lehenik eman, gero eskatu!

Ardo freskoa edan beharko dugu, on eginen digu gaur. Badugu premia!

Izan ongi eta saiatu bertzei laguntzen, adiskide! Ez zaitzela eskalea izan, emalea baizik. Hori dugu biderik hoberena.

HIZTEGIA:

IRAKURRI: Leer

IDATZI: Escribir

EUSKALDUNBERRI: Euskaraz handitan ikasi duena, eskolara joanez eta horrela

HIZTEGIA: Vocabulario, diccionario

ERDIETSI: Lortu

IRAINDU: Insultar

Urritzola: herri txiki, istorio ugari!

Urte hasiera mugitua izan dute Urritzolan, hotz ez geratzeko agian, elur ugari ere izan baitute. baina elkarlanean, auzolanean aritu dira, eta inauteriak antolatzeaz gain, 85 gaztainondo landatu dituzte herrian.



Gaztainondoen landaketa:

Urtarrilaren 28an Urritzola-Galaingo Pikotoiz parajea 85 gaztainondoren landaketa auzolanean egin zuten herritarrek. Oraindik ere gaztainondo zahar batzuk gelditzen omen dira paraje horretan eta natura ondarea mantentzeko asmoz, Urritzolako udalbatzak inguruak garbitu, hesitu eta hibrido eta txertatutako mota desberdinetako 85 gaztainondo landatu ditu.

Igande goizean egin zen landaketa, eta 60 pertsona inguruk parte hartu zuten, ia herri osoak. gainera, nahi zuen orok, norberak landatutako gaztainondoari bere izena jartzeko aukera zuen, jabetza

sinbolikoa hartu eta oroitzapenerako gelditzeko. Landaketaren ondoren, auzolanean parte hartu zuten guztientzat "herrikutxan" ongi merezitako bazkaria egin zuten.

Inauteriak:

Otsailaren 10ean, herriko inauteriak ospatu zituzten Urritzolan. Beti bezala ohikoak diren babak, txerri buztana, ardi txuleta eta tirri-tarra eraman zituzten sabelera, edabe magiko batez lagunduta; herriko druida den Genarok prestatutako "digestol" edariaz lagundu baitzuten eguerdi aldera egindako gosari-bazkaria. Edu akordeolariak girotutako bazkalondoa eta gero, arratsalde guztian etxez etxe ibili ziren giro eder eta jendetsuan puxkek biltzen. Gauean elkartean bildu ziren berriz, jasotako txerri puxke guztiekin afaria egiteko, eta ondoren "Anitaren bilobak" alaitutako gaupasa izan zuten goizalderaino.

Herri txiki, infernu handi:

Esan behar da "Urriztigain" etxeke Genaroren "Digestol" a hain famatu egin dela, ezen inauteriak bukatu eta gero "Herri Txiki Infernu Handi" sailekoak prestakuntza, osagaiak eta efektu miragarriak probatzera etorri baitziren.



BIZILUR, herrien eta hiriaren arteko aliantza



EHNE-Nafarroa sindikatuak (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) sustatuta, “Bizilur” proiektua sortu zuten Nafarroako landa eremuko hainbat ekoizleek. Horien artean Egozkueko Marta Perez dugu, abeltzaina eta Loperena gaztaren ekoizlea.

Kontsumo talde bat da Bizilur, ARCO egitasmoaren barnean kokatzen dena, kontsumo arduratsu eta agroekologikoa oinarri. Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremana ezinbestekoa da, hau da, produktua eskuratzen dutenek non, nola eta nork ekoizten duen ezagutzea. Beste era batera esanda, hiriaren eta herriaren edo landa eremuaren arteko harreman zuzen bat izatea, bien arteko aliantza; baitak bestea behar baitu.

Izan ere, kontsumo taldea bi sektoreek osatzen dute, kontsumitzaileek eta ekoizleek, eta biek hartzen dituzte konpromezuak: Ekoizleak kalitatezkoa eta sasoikoa den bere ekoizpenarekin hornitzeko eta hau zuzenean saltzeko konpromezua hartzen du. Eta kontsumitzaileak bertakoak, sasoikoak eta ekologikoak diren produktuez osaturiko saski itxia astero kontsumitzeko konpromezua hartzen du.

Beste puntu garrantzitsu bat bitartekari eza da, ekoizlearendako bidezko salneurriak lortzeko eta kontsumitzaileei arrazoizko salneurriak eskeintzeko, bana-tzaile handien gehiegikeriak saihesteko xedez.

Eta nola ez, elkarrenganako errespetua; ikuspegi agroekologikopean, ekonomikoki errentagarriak, jendartearekiko sentiberak eta ingurumenarekiko begirunetsuak diren elikagai ekoizpen eta kontsumo ereduak sustatzea. Aldi berean, bertako ekoizpenen

sustapena eta bertako nekazal ekoizpenaren lehenestea dira helburuetako batzuk.

“Bide Berriak”, elikadura burujabetza Euskal Herrian EHNE sindikatuak beste hamaika borroka eta proiektu bultzatu ditu azkenaldian. Horien artean “Bide Berriak” dokumentalaren ekoizpena dago.

Dokumentalak baserri aldeko eta hirietako biztanleak sentsibilizatzea du helburu, neoliberalismoaren kontra dauden mugimendu nekazarien eta herrien elikadura burujabetzaren aldeko borroken inguruan.

Erakunde eta kolektibo desberdinetako emakume eta gizonen lekukotasunak eta bizi esperientziak biltzen ditu, eredu hegemonikoari alternatibean bidez aurre nola egiten dieten erakutsiz.



“Haurrendako tokirik onena haur eskola da”

Martxoaren 1etik 15era datorren ikasturterako aurrematrikula egiteko epea izanen da. Aurrekoan Jauntsarasko Ttikienarekin mintzatu ostean, Iraizozko Xinbili Xanbalarekin mintzatu gara. Bi haurrak eskolan izan dituen Edurne Barberenari egin diogu elkarrizketa:

Xinbili Xanbala
haur eskola

Maite Bertiz
zuzendaria

Edurne Barberena
gurasoa



Zuk, Miren, haurrak Xinbili Xanbala izan dituzu?

Biak izan ditut, bai. Unax bi urterekin sartu zen eta bi urtez egon da hemen, aurten amaitu eta eskola handira pasako da. Eta bertzea ere, Alaitz, bertze bi urtez egon zen.

Duela urte batzuk lanean egon zinen haur eskolan.

Bai, 21 urterekin hasi nintzen, eta 25ekin atera nintzen.

Beraz, zalantza asko ez zenuen edukiko haurrak ekartzeko?

Ez, Oso argi nuen bi haurrak haur eskolara ekarriko nituela. Lehenengo urtea nirekin eduki nituen, posible nuelako, baina hemen oso-oso ongi daude, txiki-txikitatik ekartzea oso positiboa dela uste dut; pila bat ikasten dute, etxean izango ez dituzten esperientziak izan, sozializatu, autonomia garatu...

Gainera, lankideak ezagutzen ditut, eta badakit nola egiten duten lan. Horregatik konfiantza osoa daukat haiengan, lan egiteko modua asko gustatzen zaidalako.

Garrantzitsua da haur eskola bat gertu izatea?

Bai, ikaragarri garrantzitsua da, beharrezko zerbitzu bat da. Bestela, aitatxi eta amaxirekin oso ongi egoten dira, noski, baina haur eskolan ikasi eta garatzen dutena ez dute lortzen.

Eta egongo ez balitz, zer?

Bada, ez dakit. Nik denbora bat libre izan nuen haurrak lehenengo urtean hezitzeke, baina lehenengo urtetik aurrera senarrak eta biok lan egiten genuen. Eta aitatxi eta amaxirekin uztea? Ni ez nengoen prest. Nahikoa izan dute gu hezitzen, eta noizean behin zaintzeko eramaten dizkiegu bilobak, baina ezin du karga bat izan.

Haurrak hezitzeke modua aldatu da, haur eskola jada ez da haurrak gordetzeko toki bat.

Lehen “guarderia” esaten zitzaion, baina nik ez dut hori inondik inora sentitu hemen. Primeran zaintzen dituzte, noski, baina askoz gehiago da, eta hezitzaileak oso ongi prestatuta daude hezkuntza on bat emateko.

Haur eskola ezagutzeko ate irekiak:

Otsailaren 19an (16:15-17:30)

Aurrematrikulazio kanpaina:

Martxoaren 1etik 15era

2 modulu:

Maite Bertizek esan digu aspaldian 4 modulu izaten zituztela, baina urte asko daramatzatela 3 modulurekin lanean. Joan zen urtean bat kendu beharrean izan ziren, ez zelako egon matrikula nahikorik 3. modulua edukitzeko. Ondorioz, aurten 2 modulurekin ari dira.

Datorren ikasturterako berriz 3. modulua hartzeko erronka dute, eta horretarako aurrematrikulazioan 3 modulu izateko adina haur izen emanda behar dituzte. Bestela ez da aukerarik egonen matrikula egiteko garaian.

Haur gutxiago:

Azken urteotan haur gutxiago sartu dira haur eskolan. Arrazoiak ugari dira: Haur gutxiago jaio izana, gurasoen soldaten jaitsiera, langabezia...

JAUNTSARASKO TTIKIENAN ATE IREKIAK:

Otsailaren 26an, 16:00-17:30



Larraitzarko ikastetxeko estazio meteorologiko berria

Egunon, egunhotz!



Argi dago eguraldiak gero eta leku handiagoa hartu duela gure bizitzan. Nork ez ditu “aemet”, “eltiempo.es” edo “euskalmet” web orriak bisitatzen?

Eguraldia igogailuetako elkarrizketetan erregea da, baita ogi bila joaten garenean ere. Egunero zeruari eta telefonoari begira gaude; momentu orotan Urak zer oparituko digun jakin nahian.

Guk meteorologia zer zen Maldonadorengandik ikasi genuen. Berak Teleberria bukaturik une motz bat zuen hurrengo egunetarako eguraldia kontatzeko. Egia esan ez zen gaur egun bezalakoa. Garai hartan asmatzea oso zaila zen eta sinesgarritasuna puntu bateraino ematen genion. Gaur, berriz, ordu bakoitzean egingo duen tenperatura, hezetasuna, euri kopurua edo haize maila jakin ditzakegu.

Eta nola ez, gizartean kezkatzen gaituzten gaiak

ikastetxera eramaten ditugu! Horregatik Nafarroako AEMETeko arduradunarekin, Peio Oria Iriarterekin, kontaktuan jarri eta estazio meteorologiko bat mailegu eskatu genion.

Aireportuan, erabiltzen ez zuten bat aurkitu zuen, eta konpondu eta margotu ondoren, ikastetxera ekarri zigun. Etxola ezezik, tenperatura baxuena eta altuena neurtzeko termometroa eta plubiometroa ere ekarri zituen. Gutxi izango balitz, datuak hartzeaz arduratuko diren DBH 4. Mailako ikasleekin ere elkartu zen eta horiek nola hartu eta apuntatu azaldu zien.

Beraz, hemendik aurrera Larraitzarko klimari buruzko hainbat zehaztasun izango ditugu gero klimograma egiteko eta, bide batez, datuak estatistikan eta matematiketan ere, lantzeko!

Eskerrik asko Peiori eta proiektu horretan parte hartuko duzuen guztiei!



Abian da emakumezkoen lehenbiziko esku-pilota txapelketa

Urteroko pala eta frontenis txapelketekin batera hasi da aurtengo berrikuntza den emakumezkoen esku-pilota txapelketa. 4 bikote ari dira parte hartzen azken honetan.



Basaburua eta Imozko kirol batzordeak antolatuta, hasi da jada pilotaren beste zita garrantzitsu bat gurean. Gartzarongo txapelketak amaituta, azken urteotan izan ditugun paleta goma eta frontenis txapelketak hasi dira; palan gizonezkoak arituko dira eta frontenisean emakumezkoak.

Emakumezkoen esku-pilota:

Aldizkari honen azken alean aurreratu bezala, emakumezkoendako esku-pilota txapelketa da aurtengo berrikuntza, eta kanpotik etorritako 8 emakume ari dira lehian.

Pilota infantil mistoa jokatzeko dute, antolakuntzak aipatu bezala. Parte hartzen ari direnak neska gazteak dira, batzuk oso gazteak. Hauek dira bikoteak: Olatz (Eulatekoa) eta Leire Garai (Gazteizkoa), Ane eta Ainhoa (Uhartekoak, 12 urtekoak), Arrate Bergara (Bergarakoa) eta Naroa Agirre (Zestoarra) eta laugarrena Miren Larrarte (Bidania) eta Miriam (Gipuzkoako Zubietakoa).

Orain arte bi partidu jokatu dira, hauek dira emaitzak; Olatz eta Leire 18, Ane eta Ainhoa 2, Arrate eta Naroa 6, Miriam eta Miren 18.

Emakumezkoen frontenisa:

Emakumezkoen frontenis txapelketan 5 bikote daude. Momentoz partidu bakarra jokatu da; Ohiane eta Judith (Gaskuekoak) 25, Andrea eta Saioa (Latasakoak) 20.

Gizonezkoen paleta goma:

Eta paleta goman, urtero bezala, bi maila daude. Lehen mailan 14 bikote ari dira, eta bigarren mailan bost. Azpimarratzekoa da lehen mailan aldaketa kualitatibo

eta kuantitatibo handia izan dela. Baztandik eta Iruñerri-tik etorritako bikote berriak daude, eta baita Gipuzkoa aldeko beste bat ere, Andoaindik etorria. Ondokoak izan dira orain arteko emaitzak:

Bigarren mailan: Zapa eta Santi 30 - Zepelo eta Juanjo 28, Jorge eta Josu 16 - Zepelo eta Juanjo 30, Zapa eta Santi 30 - Roberto eta Alex 17, Zepelo eta Juanjo 30 - Riki eta Ibai 16, Alex eta Roberto 30 - Jorge eta Josu 22.

Lehenengo mailan: Legarra eta Urtasun (Iruñea) 30 - Erbiti eta Lazkoz (Eiarreta) 24, Legarra eta Urtasun (Iruñea) 27 - Beloki eta Loidi 30, Goñi eta Berho (Ornoz) 29 - Sergio (Eugi) eta Julen Retegi (Aria) 30, Luis eta Jesus Mari (Iruñea) 14 - Igoa eta Gamio (Berroeta) 30, Xanti eta Kasillas (Irurita) 30 - Alberro eta Urtxipia (Atarrabia eta Barañain) 18.



Kuba, Egipto eta eltxoak



Bada, honek guztiak badu erantzun arrazoitu bat, eta euliekin dauka zerikusia. Izan ere, Kubak urteak daramatza Denge gaitzaren aurkako borrokan murgilduta. 1970ean Afrikako 7 herrialdetan baino ez zen Denge gaitzik aurkitu, baina 2017an mundu osoko 100 herrialdetan aurkitu da. Dengea garraiatzen den eltxoa mundu osora zabaldu da, bereziki klima tropikala duten hirietara. Eta zein da eltxo horren izena? ***Aedes Aegypti***.

Ez du ematen harreman handirik dagoen hiru elementu hauen artean. Kuba Karibe itsasoan dago, Egipto Mediterraneo itsasoan, bata bestearengandik urrun. Eta eltxoak, bada bi herrialdeetan daude noski, munduko txokorik gehienetan bezala.

Zein da orduan testu honen interesa? Bada, pasadizo dibertigarri bat kontatuko dizuegu orain, Kuba duena protagonista:

Kubatik itzuli berri, bikote batek hala esan zuen: *Kuba diktadura bat da! Hara non ikusi nituen bi soldadu etxe batean sartzen, bertakoei Egiptoren aurkako deklarazio bat sinarazteko!*

Eta burura galdera bat etorriko zaigu noski, Egipto? Zergatik Egipto? Arazoak izan dituzte azkenaldian Egipton Udaberri Arabiarrean, presidentea atxilotu, "Anaia Musulmanek" boterea hartu... baina zergatik izango luke Kubak gatazka bat Egiptorekin?

Ezagun batek harriturik galdera hori bera egin zion bikoteari, eta beste bat ere bai: *Arma zituzten soldaduek?* Azken honen erantzuna ezezkoa izan zen, eta lehenengoarena galdera ikur handi bat, ez zekiten zergatik Egipto, eta soldaduei galdetzera ere ez ziren ausartu, baina jarrera diktatoriala iruditu zitzaion.


Zein izango zen beraz benetako gertaera, eta garrantzitsue-na, zergatik Egipto?

Hara hor lotura! Baina zertan ari ziren soldaduak? Bada turista bikote horrek ikusi zituen pertsonak ez ziren soldaduak, Osasun Ministerioko langileak baizik, arropa berdez jantziak, eta soinean *Aedes Aegypti* leloa idatzirik. Denge kasu bat ateratzen delarik, haien eginbeharra etxe hori fumigatzea izaten da, eta noski, jabeek idatzi bat sinatzen dute halako kasu bat gertatzen den aldiro.

Gaur egun Denge eta Zikaren aurkako borroka mundu erdia hartzen du, eta "tigre" motako eltxoak dira garraiatzaileak, *Aedes Aegypti* kasu. Hala ere ez gara afera honen larritasunaz ohartzen etxean daukagun arte, baina ez dago gaizki gogoratzea zika kasu bat izan zela joan zen urtean espainiar estatuan.



Urtebetetzeak



BEÑAT



MARKEL



MAIDER

IMANOL



ALAITZ





“Euskaldun guztion aberria” (Iban Zaldua)

“Euskaldun guztion aberria EusKafka da” dio Alberdaniak 2008an kaleratu duen Iban Zalduaren eleberri honen kontrazalak. Eta Kafka idazle txekiarrek Metamorfosia liburuan gizon bat izugarritzko zomorro bihurtu bazuen, Zalduak, bere aldetik, Euskal Herria beste aberri bat bilakatzen du eleberri honetan, literaturaren eta irudimenaren laguntzaz. Bueno, eta Josebarenaz, eleberriaren protagonista.

Joseba Unibertsitateko irakaslea da Gasteizen, zutabe bat idazten du egunkari batean, eta euskal gatazkaz (edo “Gauzaz”, Zalduak izendatzen duen bezala hainbatetan) gogaituta dago. Aldaketa bat behar du bere bizitzan eta abagune hobezina aurkitzen du Alaskara irakasle joateko eskaintzen diotenean. Abagunea edo aitzakia galanta, egia esan, euskal gatazkaz aparte, Joseba kezkatzen duena da bere bikotearekiko harremanak: Arantzak 37 urte ditu eta ama izateko aukera galtzeko zorian dagoela konturatzen ari da; Joseba, aldiz, ez du presarik. Azken batean, bere abentura Alaskan sei hilabete baino ez dira izango!

Erabakia hartuta dago, beraz, (edo bi erabakiak, baita Arantzarena ere) eta Joseba “University of Alaska”, Anchorage hirian, joango da irakasle, gure hizkuntza, kultura eta gizartearekin hango ikasleak liluratzeko. Baina Alaskan lana Josebak uste zuen baino zailagoa izango da (edo errazagoa, eleberri honetan dena izan baitaiteke gauza bat eta bere kontrakoa): ikasle horiek ez dakite non dagoen Euskal Herria, zer den musa, ez dute ETAREN berririk...

Hori guztia aprobetxatuz, egun batean Josebak Euskal Herriari buruzko gezur txiki bat kontatuko die, klasea entretenigarriagoa izateko. Eta ikasleak konturatzen ez direnez, hurrengo egunean beste gezurtxo bat, eta hurrengoan beste bat... Euskal literatura eta historia moldatuko du bere nahierara irakasleak, beste aberri bat, beste Euskal Herri bat gure “aberria”ren ordez bihurtu arte.

Zalduak bere nobela eta ipuinetan sarritan egiten duen bezala, errealitatea eta imajina-



zioa nahasten du Euskal guztion aberria liburuan (eleberriaren bukaeran batez ere, baina ez dugu spoilerik egingo). Zer da errealismoa? Non daude mugak? Ez dira akaso egiazkoa imajinatzen duguna?...

Iban Zalduak (Donostia, 1966), hainbat aldiz Euskadi Saria irabazlea, liburu asko eta genero ezberdinetan idatzi du (eleberriak, saiakera, gazte literatura...) baina ipuinzale amorratua da batez ere eta, hain zuzen ere, “Euskal guztion aberria” ipuin luze eta eleberri motzen artean dagoen liburu horietako bat da.

Bukatzeko, gehituko ditugu bi idatzi ohar: alde batetik, Ultzamako liburutegian dauzkagula eleberri hau eta Zalduaren beste liburu batzuk (esaterako, Biodiskografiak, Gezurrak, gezurrak, gezurrak, Traizioak, Itzalak...); eta, beste alde batetik, gaurkotasan kuriositate edo albiste bat: Handia film supersaridunaren zuzendarien hurrengo lana izango da Iban Zalduaren ipuin batean oinarritutako film labur bat: Ama, idazlearen Inon ez ez, inoiz ez liburuan sartuta.



Baztango bigarren jardunaldi agroekologikoak

Otsailaren 20an egindako aurkezpenean, Joseba Otondo Baztango alkatea eta Hazitik Hozie elkarteko kideak aipatu zuten, «bigarren urtez, Baztango Agroekologia Eskola Herritarra eginen dugu Baztanen. Eskola honen helburua herritarrak agroekologiarat hurbiltzea da. Agroekologiak etorkizuna erran nahi du. Agroekologia jaten dugunaz kezkatzea da, jatekoak produzitzeko teknika eta moduetaz arduratzea, lan-harreman eta bizi-baldintza justuak bulkatzea, ingurugiroa eta osasuna zaintzea, landa-eremu bizien alde lana egitea. Gaur egun nagusi den produzitzeko eredu industrial eta intentsiboarekin nekazariak hankapean hartzen dituzte, kontsumitzaileak jateko eskasekin bazkatzen, landa-eremuak desegituratu eta husten; ingurunea pozoitzen. Bizia maite dugulako, eredu aldaketa bulkatu beharra dago, agroekologiaren bidea ibili».

Ildo horretatik, iaz, Baztango zortzi elkarte eta erakunderen ekimenak koordinatu eta Baztango Agroekologia Eskola Herritarraren izenburupean egitarau bateratua eskaini zuten. 120 herritarrek parte hartu zuten ekitaldian. Alde horretatik, bai edukietan bai parte hartzean balorazio positiboa egin dute.

Aurten elkarte eta erakunde gehiagok parte hartuko dute eta eskaintza ia osorik berriro ahal izan dute, «agroekologiaren aukerak mugagabeak direnaren erakusle». Hazitik hozie, EHNE, Lekarozko Legate elkarte, Elizondoko Aise eta Erlategi elkarteak, Berroetako Gure ametsa elkarte, Anizko Mendiarte elkarte, Anizko herria, Zigako herria, Berroetako herria, Elizondo herria eta Baztango Udala dira parte-hartzaileak. Hauek dira landuko dituzten gaiak:



- Haziaren Eguna (martxoaren 10ean Zigan) : Hazi trukea, Jakoba Errekondoren hitzaldia...
- Solasaldia: Glisofatoa-Rondup, inguruaren pozoiketa eta jendeen minbizia (Martxoaren 22an Elizondon)
- Bertako zuhaitz espezie eta barietateak ezagutzeko ibilaldia (Martxoaren 24an Berroetan)
- Garagardo ekologikoa egiteko ikastaroa (Apirilean Elizondon)
- Gasnagintza ikastaroan (Maiatzaren 12an Elizondon)
- Larraldea sagardotegi eta sagardi ekologikorat ateraldia (Lekarotzen)
- Asteburu mikologikoa (Iraila edo Urrian, Elizondon)
- Inguruen izenak eta toponomia ezagutzeko ibilaldia (Urrian Elizondon eta azaroan Anizen)
- Zerri mondonga ikastaroa II (Abenduan)
- Ogi ekologikoa egiteko ikastaroa (Abenduan)

Lehenengo fasea amaitu dute Bardoeak

Fase hau amaitu eta sei taldek lortu dute bigarrenerako sailkatzea. Martxoaren 2an hasiko da.

Saiook jokatura, amaitu da Bardoen lehenengo fasea. Sei dira bigarren faserako sailkatzea lortu duten taldeak: Lesakako "Unibertsolariak", Larraun-Araizko "(Larraun da Araitz) Bi dozena"; Berako "Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi"; Baztan-Malerrekako "Addams familia", Leitzako "Aldatzea komeni" eta Iruñeko "Topa bardo kopa!".

Bigarren fasean sei saio jokatu dira martxoaren 2tik 11ra. Saioak non eta noiz izanen diren hurrengo egunotan zehaztuko dute taldeek. Bigarren fase honetatik hiru talde sailkatuko dira martxoaren 24an Lekunberriko Toki Alai sagardotegian jokatu den Bardoen finalera.



NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz
 Tailer mugikorra
 Pneumatikoen aldaketa
 Zulatutako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A
Aizarotz (Bañaburua)

  info@neumaticosbetelu.es
646 47 41 66

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
 pneumatikoak konpontzera
 -Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
 -Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR

ELEKTRIZITATEA

 **629 31 53 32 - 722 766 835**

 **Lizaso**

 **karikolaregoitz@gmail.com**

DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL.: 678 623866

argapin@hotmail.com



ZIAURRITZ

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberitzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

